ASTEKARIA - 2012ko maiatzaren 25ean - XVI. urtea - Usurbil, 491. zenbakia

TOKIKOM

www.noaua.com

# Noaua!!



**Heziketan ere, lagungarria da bertsolaritza**



## Sagardoa faltan ez den bitartean, komeria gutxi


AZKONOBIETA
LAN FORESTALAK
sasi garbiketa, hesi lanak, landatzea, inausketa, mugarriztatzea, mozketak, eta mendiko edozein lan mota.
656 720 607
azkonobieta@hotmail.com


FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, Usurbil
ASEGURUA DUTEN FAMILIENTZAT:
Deitu ZUZENEAN gure ehorztetxera, zerbitzua ematen hasteko denbora murriztuz, izapide guztietaz arduratuko gara eta BONIFIKAZIO berezi bat zuen polizan
ASEGURU GUZTIAK
BEILATOKI-TANATORIO GUZTIAK
ERRAUSKETAK
OSPITALETAN ERE ZERBITZUA
943 36 21 63 (24H)
660 388 652 - 608 16 77 92
info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es


USURBILGO LANBIDE ESKOLA
943 36 46 00
www.lhusurbil.com
Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak
Administrazioa eta kudeaketa
Elektrizitate-elektronika
Fabrikazio mekanikoa
Ura eta energia Produkzio zerbitzu eta manten.
Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.
AURREMATRIKULA maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

Albistea iruditan

# Nor bere lanean

Ez. Ez diegu "Albistea iruditan" atalerako argazkia eskatu hiru lagun hauei. Baina deskuidoan edo, atal honetarako irudi ederra oparitu digute. Ez gara sagardo botatzaileaz eta bi epaimahaikideez ari. Ez, ez. Argazki kameraren atzean dauden hiru lagunek erraztu digute atal honetarako irudi aproposa.

Eta ez pentsa hain trebeak garenik. Argazkilariek horrela pasa baitzuten botatzaileen lehiaketa osoa: oholtza gainean batzuetan, oholtzaren azpitik besteetan. Noiz edo noiz ere, botatzailearen beraren aldamenean. Baina argazkian ageri den botatzailea ez zen gehiegi kezkatu. "Kerman Errekondoren txanda!" entzun zuenean, oholtza gainera igo, botila ireki eta irmo ekin zion bere lanari. Argazkilarietan erreparatu gabe. Eta txapela berarentzat izan zen...



KERMAN ERREKONDO, ARGAZKILARIEZ INGURATUTA.

## Telefono interesgarriak

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | DYA | 943 464 622 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Etumeta AEK Euskaltegia | 943 372 001 | Emergentziak | 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Taxia (Angel) | 607 928 770 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 | BBVA | 943 377 155 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Eusko Tren | 943 470 976 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Anbulategia | 943 362 013 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| KzGunea | 943 023 684 | Oa botika | 943 376 076 | Telefonica | 1004 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Iturralde botika | 943 363 395 | Euskaltel | 900 840 840 |

Noaua!
NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

# Gainera, errudun sentiarazi

Azken aldian, ekonomiako albisteetan erreparatzen hasi zara. Egunkariko orrialde horiek ez dituzu sekula irakurri, ez duzulako ekonomiaz tutik ere ulertzen. Baina txikito, gauzak oso gaizki daude. Euroa dagoenetik, arrisku saria ez da hain goian egon eta kezkatu egiten zaitu horrek. Lanak izango dituzu arrisku saria zer den esplikatzen, baina demonizko tasa hori ia jaitsi ote den begiratuko duzu, tarteka, Interneten.

Eta ez zara bakarra. Estrainekoz, merkelkeriak eta ekonomia kontuak hizpide dira ostiraleko errondan. Eta konturatu zara, zu bezala, gainontzekoak ere berdin dabiltzala. Tutik ere ulertu gabe. Kezkaturik. Ze gauzak ez daude ondo. Nork ez du inguruan langabezian den lagunik edo seniderik?

Hori lortu dute behintzat. Kezka eta beldurra sartu dizkigute barruraino. Eta beldurrak geldiarazi egiten zaitu. Duzun apur hori defentatzera behartzen zaitu; ur handiagotan sartzeko gogoa kendu.

Bestela, nekez uler daiteke aurreko astean aldizkari honetan bertan irakurri zenuena. “2011n, Michelin talde osoak ia 1.500 milioi euro irabazi izan zituen, 2010ean baino %40 gehiago”. Eta hala ere, “zentro artekoan gehiengoa duten sindikatuek (CCOO, UGT eta CSI) Michelinek aurkezturiko Enplegua Erregulatzeko Espedientea (EEE) onartu dute”. Beldurraren eraginez. Eta horretaz baliatzen ari dira. “Beldurtzen ari gaituzte, ezin dela kontra egin bestela okerrago izango dela”.

Langabeen testigantzak ere irakurri zenituen igandeko Berrian. Eta lerroburu batek zer pentsatua eman zizun: “Esperientzia eta eskarmentu handia daukagu, baina urte gehiegi”. 53 urteko langabetu batek dio hori. Hara hor beste adibidea. Kezka eta beldurra sartu dizkigute barruraino eta, gainera, errudun sentiarazi.

**Imanol Ubeda** - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

# Goazen Plazara ekimenak jarraipen zabala izan du

Milaka lagun kalera atera ziren aurreko larunbatean, Herrira mugimenduak euskal preso politikoen eskubideen alde plazak betetzeko egindako deialdiari babesa adieraziz. “Goazen Plazara” ekimenak jarraipen handia izan zuen Euskal Herrian. Antolatzaileen esanetan, guztira 227 elkarretaratze egin ziren. Usurbilen, Dema plazan elkartu ziren hainbat lagun eta “presoak herrira” hitza osatu zuten. Garabi batetik ateratako argazkia igorri digute. Sagardo Egunean ere, euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko eskualde mailako elkarretaratzea egin zen.




OSTIRAL HONETAN HILABETE AMAIERAKO ELKARRETARATZEA EGINGO DA, 20:00ETAN MIKEL LABOA PLAZAN.









# Errausketaren aurka, haize errota erraldoi eta koloretsua eraikitzeko deia

**Herritar askok gogoan izango dute iazko Zubietako flash mob-a. Erronka berri eta handiago bat aurkeztu dute oraingoan. Jada, sinboloan bilakatu diren haize errota koloretsu erraldoi bat irudikatu nahi du Gipuzkoa Zero Zaborrek, ekainaren 17an Donostiako Saguesen. Herritarrei ekimenean parte hartzera deitzen diete. Asteotan, prestakizun lanetarako deialdiak egingo dituzte.**




EKAINAREN 17AN EGINGO DA DONOSTIAKO SAGUESEN.

Zubietako iazko flash mob-a erronka handia bazen, eta 2.000 lagunetik gora bildu bazituen, apustu handiagoa egin nahi dute oraingoan, Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ) bilgunetik. Errausketaren aurka eta herritarren laguntzaz, haize errota koloretsu eta erraldoi bat irudikatu nahi dute ekainaren 17an, Donostiako Saguesen.

> **GIPUZKOA ZERO ZABOR**
>
> “Ezin dugu ikusle hutsak izan. Ezin dugu haizeak hostoak bezala, nora eramango gaituzten zain geratu”

“Kolorezko haize errota erraldoiaren bidez, etorkizuna aldarrikatu nahi dugu, itxaropena. Inork ez dauka posiblea den mundu hobeago batean bizitzeko daukagun itxaropena zapuzteko eskubiderik. Etorkizuna koloretan nahi dugu eta hori aldarrikatuko dugu”, iragarri zuten GZZ-ko kideek, ekimena aurkezteko joan den ostiralean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean eskaini zuten agerraldian.

Ekainaren 17ko mosaiko erraldoiari zer nolako itxura eman nahi dioten, eskutan zituzten haize errotekin irudikatu nahi izan zuten. Eta modu honetan azaldu zuten, nola burutu nahi duten ekimen berri hau. “Haize errota, herritar guztion artean osatuko dugu. Herritarren konpromisoa eskatzen du horrek. Milaka herritarren konpromisoa. Ekainaren 17an gure lekua hor dagoela aurrez erakutsiko dugu. Horretarako gutako bakoitzak mosaikoa osatzeko banatuko ditugun piezen bidez hartuko dugu lekua eta bertan egoteko konpromisoa. Hau guztia aurrera eramateko, herri guztietan lantaldeak osatzeko deialdia egingo dugu. Etorkizunak konpromisoa eskatzen duelako. Ezin dugu ikusle hutsak izan. Ezin dugu haizeak hostoak bezala, nora eramango gaituzten zain geratu”, esplikatu zuten.

## Kolorea, iraunkortasuna eta itxaropena

Mosaiko erraldoiarekin, GZZkoen esanetan, “naturak dauzkan zikloak gure ekonomiak barnera ditzan eskatuko dugu, errotaren mugimendu zirkularrarekin. Errotak haizearekin egiten duen bezala, naturan dauden baliabideak, natura kaltetu gabe erabiltzea aldarrikatuko dugu”. Ez hori bakarrik, baita noski, erraustegiko proiektua bertan behera uztea eskatzea ere. Euren esanetan, batzuek ekarri nahi duten “grisa, etsipena, porlana, zaborra, kea, kutsadura, errautsa, gaitza” bezalako kontzeptuen aurrean, “kolorea, etorkizuna, iraunkortasuna, konpromisoa eta itxaropena” helarazi nahi dute ekainaren 17an, jaia eta aldarrikapena uztartuko dituen ekimen honen bidez. Ekimenari buruzko zehaztasun gehiago antolatzaileek emango dituzte datozen asteotan. Informazioa noiznahi, GZZ-ren atarian: www.gipuzkoazz.com

### Europe Zero Waste

Duela bi asteburu, Europe Zero Waste, Europa mailako zero zabor mugimenduak urteroko kongresua Donostian ospatu zuen. Gipuzkoa Zero Zabor bilguneak Europe Zero Waste mugimenduan integratzeko eskaera aurkeztu zuen.

# "Euskarak lan munduko hizkuntza ere izan behar du, eta ez soilik eskoletan erabiltzekoa"

**Buruntzaldeko Udal eta ikastetxeen arteko elkarlanari esker, euskara planak sustatzeko ekimen bat jarri zen martxan, duela 10 bat urte. Bi ardatz nagusi ditu ekimenak. Batetik, ikasleak euskaraz ikastera animatu nahi dituzte, baita lan mundura sartu aurretik egiten dituzten azken ikasketetan ere. Bestetik, Udalek, ikasketa materiala euskaratzeko laguntzak ematen dituzte.**

Maiatzaren 18an Usurbilen emandako prentsaurrekoan, euskarak lan munduko hizkuntza ere izan behar duela eman zen aditzera; eta ez soilik eskoletan erabiltzekoa, Buruntzaldeko udal eta ikastetxeetako ordezkariek azpimarratu zuten bezala. "Eskoletan eta DBHn egiten den lana oso garrantzitsua da eta lan horri bultzada emateko, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako zikloak euskaraz ikasteko aukera badago", gogorarazi zuten.


ESKUALDEKO UDAL ORDEZKARIAK ETA ESKOLETAKO ZUZENDARIAK, POTXOENEAN.

### Aurrematrikulazio epea zabalik

Batxilerra eta Lanbide Heziketako zikloetan laster irekiko da aurrematrikulazio epea. Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra bitartean izango da izena emateko aukera.

### Materiala euskaraz

Materiala euskaratzeko dirulaguntzak ere ematen dituzte Buruntzaldeko Udalek. Lanbide Heziketako materiala euskaratzeko web orria, horren erakusgarri: www.jakinbai.com/lanbideki/hiztegia

# Jaietako egitarau diseinu lanak aurkezteko epea ostiralean itxiko da

Joan den astean bildu zen Jai Batzordea, prestakizunen azken txanpan sartzear da. Azkena izan litekeen bilera deitu du, datorren ekainaren 5erako. Betiko ordu eta lekuan, 18:30etan Potxoenean. Baieztatua dago jada, aurtengo Santixabelek bost jai egun izango dituztela, herriko festak ekainaren 28an hasi eta uztailaren 2an amaituko baitira. Santixabel egunez, aurten astelehenez.

Gogoan izan bestalde, ostiral honetan, maiatzaren 25ean amaituko dela Egitarau Diseinu Lehiaketan parte hartzeko epea. Informazio gehiago: 943 371 999 edo kultura@usurbil.net.


EKAINAREN 5EAN BILDUKO DA BERRIRO JAI BATZORDEA.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

# Etxeko olioaren bilketa berri bat abiaraziko du laster Udalak

**Etxeko arraskatik behera erabilitako olioa botatzeak arazo ugari dakartza gure inguruan; botatzen den olio litro bakoitzak 1.000 litro ur kutsatzen ditu, gure etxeetako hodietan arazoak baino ez ditu sortzen eta haraztegietan ere oso zaila da oliodun ura kudeatzea. Ekainaren 1etik aurrera, Usurbilgo Udalak herriko dendariekin elkarlanean auzoz auzo olioa biltzeko puntuak egokituko ditu.**

"Arazo hauek ez dira berriak eta usurbildarrok gehienok ezagutuko dituzue. Horrela 2011. urtean etxeetan biztanleko 0,48 Kg/bizt.urt. jaso ditugu Usurbilen, gehiena San Markoko furgoneta ibiltarian eta gainontzekoa Pikaolan. Horretaz gain, herriko taberna, elkarte, komertzio eta enpresetan ere 61.430 Kg jaso dira gutxienez, eta beraz guztia ez bada ere zati bat jada egoki bildu eta birziklatzen ari gara", Ingurumen batzordetik jaso dugun prentsa-oharrak hala dio.

### Biodesela ekoizteko, adibidez

Eta zer egiten da jasotako olioarekin? Hainbat aukera daude, esate baterako xaboiak edo industria lanetarako taladrinak egin daitezke.

Hala ere, Usurbilen kasuan "Ekogras enpresak biodiesela ekoizteko erabiltzen du, gure ibilgailuetan erregai moduan erabiltzeko (olio litro batekin diesel litro bat erdiesten da eta petroliotik zuzenean sortutako erregaiek baino eragin txikiagoa dute ingurumenean). Jasotako olioa beti dago ondo, baina badugu zer hobetu eta bilketa sistema eraginkorragoa duten herrietan biztanleko urtean kilo bat olio biltzen ari dira".



AUZOKAKO BILKETARI EKINGO ZAIO EKAINAREN 1ETIK AURRERA.

### Ekainaren 1etik aurrera

Gauzak horrela, ekainak 1etik aurrera Usurbilgo Udalak herriko dendariekin elkarlanean auzoz auzo olioa biltzeko puntuak egokituko ditu, "gure osasun eta ingurumenaren alde", udal iturriek aditzera eman dutenez.

Oraingoz xehetasun gehiago ez ditugu jaso, baina jakin bezain pronto emango ditugu aditzera aldizkari honetan bertan.

## Uretako sorospen ikastaroa, DYArekin

DYA Gipuzkoak uretako sorospen ikastaroa antolatu du ekainean, Usurbilen. Ikastaroa larunbat eta igande guztietan izango da, ekainaren 2tik 24ra bitartean. Larunbatetan, goiz eta arratsaldez. Eta igandeetan, goizez. Teoria eta praktika alderdiak landuko dira (hori bai, beharrezkoa lehen sorospen eta sorosle ikastaroa aurrez izatea). Ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, Uretako Sorosle Titulua eskuratu ahal izango du.

Matrikularen prezioa: 200 euro (ikastarorako txostena barne). Plazak mugatuak dira, ematen den hezkuntzaren kalitatea bermatzearren. Informazio gehiago jasotzeko: 943 46 46 22. Izena emateko epea: maiatzak 30.

## Ekainaren 3an, Eskola Txikien Eguna

Ekainaren 3an ospatuko da Larraulen Gipuzkoako Eskola Txikien Egunaren 25. edizioa. Festa goizeko 10:00etan hasiko da txupinazoarekin eta egun osoan zehar jai giroa nagusi izango da.

Bestetik, Eskola Txikiei buruzko dokumentala ekainaren 1ean Tolosako Leidorren estreinatuko da, arratsaldeko 19:00etan.









# Bertsoz bertso ere hezten, Udarregi ikastolan

**Duela zortzi bat urtetik, Ahozkotasuna eta Bertsolaritza izeneko egitasmoa lantzen dute Udarregi Ikastolako LH 5 eta 6 mailetan. Euskara ikasgaiaren barruan, hamabostean behin Unai Muñoa bertsolari lasartearra ikastolara gerturatzen da, aipatu egitasmoari loturiko lanketa burutzera. Bertsozale Elkartearen ekimen honen bidez, gaztetxoak hezten laguntzen dute. Ez bakarrik Usurbilen, baita Gipuzkoako beste hainbat ikastetxeetan ere. Urtean zehar egindako lanaren emaitza, maiatzaren 28an, 17:30ean Udarregi Ikastolan ospatuko den Bertso Jaialdian ikusi ahal izango da. Zehaztasun gehiago lerrootan, Unai Muñoaren eskutik.**



LH 5 ETA 6 MAILETAN LANTZEN DA AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA.

**NOAUA! Ahozkotasun eta bertsolaritza proiektuak zertan datza?**

**Unai Muñoa.** Duela 16 bat urte sortu zen Bizkaian, eta Gipuzkoara beranduago, duela 8-9 bat urte etorri zen. Helburua, betiko bertsolaritzaren transmisioa bermatu eta ondare kultural horren plan estrategiko bat izateaz gain, pentsatzen genuen bertsolaritzak neska-mutilen heziketan ere laguntzen zuela. Trebetasun pertsonaletan ere eragiten genuela; irudimen gaitasunean, diskurtso bat antolatu, kritikoak izan edo euskara modu ludikoago batean ulertzeko momentuan. Ikusten genuen, euskara ikasgaiaren barruan izan zitekeela metodologia interesgarri bat ekarpen horiek egiteko, eta bide batez, baita ere bertsolaritzaren transmisioa bermatzeko, bertso eskolen harrobi izateko, biharko bertsolaritza lantzeko…

UNAI MUÑOA

“Bertsolaritzak neska-mutilen heziketan ere laguntzen du”

**N. Nolatan jarri zen martxan egitasmoa Udarregi Ikastolan?**

**U. M.** Hainbat lekutan hasi zen. Bertsozale Elkartetik landutako proiektu bat aurkeztu zen, zenbait udaletxe eta ikastetxeetan. Gero sortu zen halako domino efektu bat, eta oso erraz txertaturiko produktu bat izan zen. Buruntzalde osoko eskaera aldi berean ailegatu zen.

**N. Zer adin tarteetako ikasleekin lan egiten duzue?**

**U. M.** Hasiera batean hiru ikasturteko proiektua planteatzen genuen. LH 4. mailatik 6. mailara, edo LH 5etik DBH 1era. Baina bideragarritasun kontuengatik bi urteko prozesu batean gelditu zen. Normalean, Udarregi Ikastolan bezala, oro har LH 5 eta 6 mailetan lantzen da, nahiz eta badiren salbuespenak; badira 4. eta 5. mailetan egiten dutenak, bi urteko prozesuak hiru urtera luzatu dutenak DBH-n jarraipena emanez, Urnietaren kasuan Buruntzaldean.

## “Helburua, hitzekin jolastea da”

**NOAUA! Egunerokoan, zer dinamika garatzen duzue? Arlo espezifiko bat da?**

**Unai Muñoa.** Euskara ikasgaiaren barruan, indar gune bezala bertsolaritza dago. Maila akademikotik haratago, hizkuntzarekin jolasteko modu ludikoago bat baita, azkenean bertsoak bere metrikak, bere egiturak eskatzen dituelako, esamolde edo esateko modu desberdinak topatzea, baliabide literario batzuk erabiltzea, bertsoa bera antolatzeko momentuan azken puntuko argudioa pentsatzea lehenengo, sintesi bat egitea, estrategia bat pentsatzea, errimak topatu, diskurtsoa eraiki, koherentea izatea… Helburua hori da. Euskararekin bat dator gehienbat, nahiz eta badiren gero, lantzen diren beste alor batzuk ere.

**N. Lanketa, ariketa eta jolasen bidez burutzen duzue?**

**U. M.** “Gu ere bertsotan” materiala dugu, eboluzionatzen joan dena hasieratik gaur arte. Kurrikuluma sortzera ere iritsi gara, hezkuntza sistemara egokituriko bertsolaritzaren kurrikuluma. Pixkanaka material hori bildu dugu eta gure ohiko dinamika, talde lana izaten da. Bertsoa ere taldean ulertzeko. Kontraesana dirudien arren, bertsolaria beti bakarrik eta bere munduan ikusten da. Baina bertsolariak ezinbestekoa du ingurua eta kidea. Taldeko lan horri lehentasun handia ematen diogu. Helburua, hitzekin jolastea da, forma ludiko bat ematea materialari, proiektuei, ekintzei eta aldi berean, taldeka eta interakzio horretan ibiltzea.

# Unai Muñoa: "Ikasle gehienak bertso bat egiteko gai izanda iristen dira prozesu bukaerara"

**NOAUA! Ikasleengan zer nolako eboluzioa ikusten duzue bi urteko prozesuan?**

**Unai Muñoa.** Teknikoki, ikasle gehienak bertso bat egiteko gai izanda iristen dira prozesu bukaerara. Diskurtso hori antolatzeko gai dira, ikasten dituzte egitura eta doinu desberdinak… Prozesu horretan badago beste alderdi bat, bertsoaren bitartez landu daitezkeen beste hainbat trebetasun. Hori jada irakasle bakoitzaren mende dago. Arrazoiketatik hasi eta emozioetara joan daitezke, bertsoak balio du Usurbili buruz kantatzeko, baina balio du beldurrei buruz kantatzeko, barne mundu hori irakurri eta kanporatzen saiatzeko.

**MAIATZAREN 28KO SAIOA**

"Guk jaialdia publikora enfokatzen dugu. Askotan ibili behar baitugu jendaurrean hizketan"

**N. Barruko lan hori urte amaieran kanporatzen duzue. Aurten hilaren 28an?**

**U. M.** Jaialdi honek bi helburu ditu; batetik, zer ikasi edo egin den erakustea eta bestalde, ikasle bakoitzak hortik aterako duena legoke. Guk jaialdia jendaurrekotik asko enfokatzen dugu. Jendaurrean jartzeak aktibatzen ditu gauza batzuk; lan horretara egokitzea, beldurrei aurre egitea, plazan jartzea, segurtasuna hartzea… Hori bera prozesu bat da eta fokalizatzen saiatzen gara. Askotan ibili behar baitugu jendaurrean hizketan.

**N. Bertsozale elkartetik baloratu izan duzue bizpahiru urteotako prozesua luzatzea, edo jarraipena ematea? Nola?**

**U. M.** Hezkuntza sistemak egitasmo hau bere kurrikulumean integratzea eta finantzatzea egokia litzateke. Baina gaur egun errealistak izanda, prozesu honek balio behar digu bertso eskoletarako nolabaiteko galbahea egiteko.

Hor ikusten delako batzuk gusturago ibiltzen direla beste batzuk baino, batzuk zaletasun edo ofizio dutela berez beste batzuk baino. Gaur egun, Gipuzkoa osotik 11.000 inguru ikaslerengana iristen bagara, zenbat ale bertso eskoletara bideratu daitezkeen. Eta bertso eskola horietatik, etorkizunean ateratzen joango dira, zaleak, antolatzaileak, gai jartzaileak, bertsolariak… Denetarik.



BELDURREI AURRE EGITEN ETA JENDAURREAN ABESTEN IRAKASTEN ZAIE, BESTEAK BESTE.

### Bota Punttuba, gazteen bertso eskola abian

Duela bi asteko NOAUA!-n jaso genuenez, DBHko gazteentzako bertso eskola abian jarri asmo du Bota Punttubak, datorren 2012-2013 ikasturtean. Izena eman edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek, botapunttuba@gmail.com helbidera idatz dezakete.

## Ikastola Egunerako girotzen joateko, ekitaldiak egunotan

Haur jaialdia, ikasleen jokoak eta besteak beste, bazkari bat antolatu ohi du Udarregik, Ikastola Egunerako. Aurten ekainaren 3an ospatuko den jai eguneko otordurako txartelak salgai daude jada, Udarregiko idazkaritzan. Helduek 20 eurotan eta ikasleek 10 eurotan eskuratu ahal izango dituzte txartelak, maiatzaren 28ra arte.

### Maiatzak 28, bertso jaialdia

Datorren astelehenean, Bertso Jaialdia ospatuko da ikastolako erdiko aretoan, 17:30etatik aurrera.

### Maiatzak 31, ohiko batzarra

Urteroko ohiko batzarra deitu dute maiatzaren 31erako, 18:00etan. Hau ere ikastolako erdiko aretoan.

### Ekainak 1, Txan magoa

Buruhandien tailerrean eginiko artelanak Sutegin ipiniko dituzte ikusgai maiatzaren 28an (18:00-19:30 artean jasoko dira lanak). Buruhandiok gainera, kalejira baten bidez, kaxkoan barrena desfilatuko dituzte ekainaren 1ean. Eta 16:30ean, Txan magoa frontoian. Gero, txokolatada egingo da.

### Ekainak 2, Merkatu Txikia

Haur Eskolako Gelaburuek Merkatu Txikia antolatu dute, goizeko 10:00etatik aurrera Kalezarren, psikomotrizitate gelan. Etxean jada erabiltzen ez den haurren materiala duenak, azoka txikira eraman eta behar duenari emateko aukera izango du. Eta zerbait behar duenak hartzeko aukera ere izango du.

# Sagardoa dagoen bitartean...

**Frontoia jendez lepo izan zen goiz osoan. Beste guneetan, ordea, ez horrenbeste. Giroa barrurako bazegoen ere, izan zen aterkia eskuan sagardoa edaten ibili zenik. Euria ez dela oztopo, alegia, Sagardo Egunaz gozatzeko. Izan ere, sagardozaleak bezalaxe, Dema plazako botatzaile asko ere hortxe izan ziren, euritakoa jarrita, sagardoa eta irribarre bana partitzen.**

Eguraldiak Sagardo Eguna trakestu bazuen ere, ez zen ezer suspenditu eta, egitaraua, iragarri bezala burutzen joan zen. Pentsa, muztioa nola ateratzen den ikusteko parada ere izan zen, eguraldia aterpean egoteko zegoen arren.

### Aitzaga zabalik

Aitzaga irekita izan zen Sagardo Egunean, aspaldiko partez, eta hortxe ere ostatu hartu zuten sagardozale askok, euritik ihesi. Askatasuna plazan, pintxoak eta edatekoa eskuratzeko aukera zegoen baina euriarekin gutxiago luzitu zuen gune honek.



FRONTOIAN PILATU ZEN JENDEA ETA GIROA BEREHALA PIZTU ZEN BERTAN.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, aldiz, Askatasuna plazako bolatokian egin zituen sagardo katak. Eta gazte asko izan ziren, adituaren hitzei adi-adi, sagardo onaren ezaugarriak zeintzuk diren ezagutzeko gogoz.

Sagardo alemaniarrak, aldiz, postu bi izan zituen frontoian eta baita jakinmina piztu ere; asko izan baitziren gerturatu zirenak alemaniar sagardoa probatzera.

## “Ez dago egun hau zapuztuko duen ekaitzik”

Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak elkarteko kideok usurbildar guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu, igandean izandako eguraldi txarraren aurrean emandako erantzun beroagatik. Euriak ez zuen atsedenik eman goiz guztian zehar, baina hala ere postu denak beteta izan ziren sagardo botatzeko garai guztian. Betiko moduan, goizeko 8:00etarako han elkartu ginen egunari gogoz ekiteko asmotan. “Eutsiko ote dio”, “gutxienez ordu pare bat atertuko balu” eta antzekoak entzuten ziren, baina aurreikuspenik okerrenak beteta, euri jasa etengabea izan zen. Hala ere, festa gogoa eta ilusioa zen nagusi. Pontxoak jantzi, eta aurrera.

Horregatik, lerro hauen bidez botatzaileoi, sukaldarioi, baso postuetakooi eta modu batera edo bestera XXXI. Sagardo Eguna aurrera ateratzeko ahalegina egin duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu. Aurtengoan argi geratu da Sagardo Eguna berezia dela usurbildarrontzat, eta ez dagoela egun hau zapuztuko duen ekaitzik.

Mila esker guztioi, eta Gora Usurbilgo Sagardo Eguna!!

**Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak Elkartea**

## Argazki eta bideo gehiago, sarean ikusgai




SAGARDO EGUNEKO BIDEOAK WWW.NOAUA.COM ORRIAN IKUS DAITEZKE. MUGIKORRETIK BIDEORIK IKUSI NAHI BADUZU, ESKUBIAN DUZU QR KODEA.




WWW.NOAUA.COM ORRIKO ARGAZKITEGIAN HAINBAT ARGAZKI IPINI DITUGU. MUGIKORRETIK ARGAZKIAK IKUSTEKO, ESKUBIAN DUZU QR KODEA.










Etxaniz anaien txalaparta saioarekin hasi zen Sagardo Eguna (1). Alemaniarrei zapia ipini zitzaien (2) eta txalaparta jotzera ere animatu ziren. Dema plazako botatzaileak (3) ez ziren kikildu eta, euritakoa soinean, lanean aritu ziren jo eta su.










Botatzaileen lehiaketan (4), Kerman Errekondo izan zen nagusi. Bigarren Arantxa Unanue eta hirugarren Urko Manterola. Euria ez zen oztopo izan, ezta muztioa ateratzen ari-tzen direnentzat ere (5). Alemaniar sagardoak jakinmin handia piztu zuen (6).

# Gune autogestionatu bat

**ITAYA gazte asanbladakook hausnarketa sakon bat egin ondoren Usurbilen hutsune handi bat dagoela ondorioztatu dugu, gune autogestionatu edo gaztetxe baten falta.**

ZERGATIK?

Herritar xumeek, instituzioetako gainbegiraturik gabe, autokudeatuko duten gune baten beharra dago; gure herrian ugariak diren eragile zein norbanakoak askatasun osoz beraien ekimenak aurrera eraman ahal izateko esparru bat, alegia.

Norberak dituen trebeziak eta ahalmenak besteenekin batu eta modu kolektiboan gure bizitza sozialean, politikoan zein kulturalean faltan botatzen ditugun ekarpenak eta harremanak garatzeko aukera ematen duela sinesten baitugu.

HORTZAK ERAKUTSI:

Kapitalismo patriarkalari,

Aisialdi kontsumistari

Alternatibak eraiki ahal izateko espazio bat behar du horretan jardungo duen jendarteak. Aisialdia aldatuko duen gunea, herritarren harremanak sendotuko dituen biltokia, ingurumena zainduko duen lekua, ahula babestu eta indartuko duen eremua, musika ez komertziala entzungo den espazioa, herria bizi eta koloretsu mantenduko duen esparrua, euskaratik euskararentzat arituko den etxea, .... HAMAIKA IDEIEN ETA BORROKEN KUTXA

HERRIAN!

Herrian gizarte lokartu, lotu, uniforme eta etxekotu honi, bere etsairik handienak diren irudimenarekin, kemenarekin, ekintza zuzenarekin, elkartasunarekin, pentsamendu librearekin eta pertsona libreen burujabetzarekin, aurre egiteko espazio zabal eta aske bat behar da.

Gaztetxea errespetuz aritu nahi duen ororen proiektua eta gune irekia izan behar da. Denon ahotsa eta iritziak izango dira beharrezkoak. Horregatik, eredu parte hartzaile baten aldeko apustu garbia egiten dugu. Behin eta berriro deia luzatzen dizuegu parte hartzera, etorkizunean sortuko diren erronkak aurrera erateko: eztabaidak, kultur ekimenak antolatzea, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak... eta bururatzen zaiguna, bururatzen zaizuena!!!

HERRITIK HERRIARENTZAT, HERRI BAT GAZTETXE BAT!!!




"Eredu partehartzaile baten aldeko apustu garbia egiten dugu".

## Gomasaltoa egitera etorri nahi?

**Hankak lurrari lotuta edukitzeaz nazkatuta? Hegan egin nahi instante batez? Etorri hadi Itayarekin Azkoitira gomasaltoa egitera! (Bai, goming).**

Noiz: Ekainak 9 larunbata, arratsaldeko 16:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Non: Azkarateko zubian (Azkoitia).

Prezioa: 30 euro. Zerrenda Irrati tabernan. Izena emateko azken eguna: maiatzak 27 igandea.

Kotxeetan joateko asmoa dugu, beraz, eskertuko genuke ahal duenak berea ekartzea. Eta Irrati tabernatik pasa ezin duenak idatzi email bat itaya@euskalerria.org helbidera eta konponduko gara.

Apuntatu beldurrik gabe eta animatu lagunak, sekulako esperientzia baita eta uste baino seguruagoa!

Edozein duda baduzu, idatzi itaya@euskalerria.org helbidera.



Ekainaren 9rako antolatu dute gomasalto saioa.

P.D: 18 urtetik beherakoek beraien kargu egingo den heldu baten baimena eraman beharko dute idatzita.

# Bartzelona aldean gustura

**DBH4-ko ikasleak gara, eta duela hilabete Bartzelonara egin genuen bidaiaren inguruan egin genuena zuei azaltzeko idazten dugu. Apirilaren 18,19 eta 20 egunak igaro genituen bertan.**



GELDITU GABE IBILI ZIREN HIRU EGUNETAN.

Autobuseko bidaia izan zen irteera guztiko astunena, nahiz eta batzuek besteen kontura ondo pasatzeko aukera izan zuten. Hala ere bertan igarotako momentuek merezi izan zuten.
Lehenengo egunean "bela" egin genuen, eta bertan ezagutu genuen zetozen hiru egunetan gurekin ibiliko zen gida, ez zen makala. Arratsaldean hotelera iritsi eta bertan instalatzeko denbora soilik izan genuen.

### Camp Nou, Port Aventura...

Hurrengo egunean, goizean goiz Bartzelona hirira abiatu ginen, Camp-Nou genuen helburu, nahiz eta asko kosta zitzaigun hara iristea, ez baikaude hiri handietara ohituta. Futbol zelaiaz gozatu eta bertan, euskaldunak ginela azaleratu ondoren, "Parc-guell"-era joan ginen bazkaltzera. Arratsaldean Ramblak bisitatu genituen, bakarrik utzi gintuztenez, izugarri gozatu genuen hara eta hona txoko guztiak arakatzen. Egun neketsua izan zen, beraz, hotelera joan ginen egunaren amaierarako. Hirugarren eguna izan zen denetatik hoberena: Port Aventura!! Ederki aprobetxatu genuen, uretan bustiz eta airean gozatuz.

Esan dezakegu, bidaia honek laburtu duela gure Udarregiko pasoa: neketsua baina indartsua.

## Buruhandien erakusketa

Buruhandien tailerreko lanen erakusketa maiatzaren 28tik Ekainaren 1era izango da. "Aurreko data aldatu dugu lan handiak egin direlako eta denboraz justu ibili garelako. Maiatzaren 28an 18:00etik 19:30era Sutegin buruhandiak jasoko dira. Desfilea ekainaren 1ean ostirala egingo da.

Gurasoentzat, bestetik, formakuntza tailerrak maiatzean bukatu dira eta Hitz Ahok dioenez, "balorazioa oso ona egin dute parte hartu duten 36 gurasoek. Hurrengo ikasturtean, urritik-apirilera hilean behin antolatuko dira tailerrak; gurasoek haurren hezkuntzaren inguruan hausnarketa leku bat izan dezaten".



MAIATZAREN 28AN IKUSGAI IPINIKO DITUZTE SUTEGIN.

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
Aristitxo 8 , behea 943 363 348 - 609 888 021

JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# Senior nesken taldea, denboraldi berriari begira

**Nerea Agudok, Gonzalo Break eta Jon Linazisorok zuzenduriko senior mailako nesken eskubaloi taldeak asteburuan jokatuko du denboraldiko azken neurketa. Maila berrian aritu dira aurten eta egokitzea kosta zaiela diote. Edozein kasutan, talde indartsu eta batua dutela baloratuta, hurrengo denboraldirako sailkapenaren goialdean egoteko erronka dute.**



GONZALO BREAREN USTEZ, “DENBORALDI GOGORRA IZAN DA”.

**NOAUA! Zer moduzko denboraldia izan da?**

**Gonzalo Brea.** Denboraldi gogorra izan da. Mailaz igo gara, eta zaila izan da. Kategoria berrira egokitzea kosta zaigu. Emaitzak ez dira esperotakoak izan, hobeto egin zitekeen. Maila fisikoari dagokionean, entrenamendu saioak prestatzerakoan nahiko justu ibili gara eta hori ordaindu dugu. Azkenean balorazioa, erdi positiboa da, denboraldia nahiko gaizki hasi arren, nahiko ondo bukatu dugulako. Orain, kategoria eta aurkariak ezagutzen dituzte, zentzu horretan ondo gabiltza.

> **GONZALO BREA**
>
> “Ekainaren 14a klubaren eguna dugu. Gure asmoa, ordura arte astero hirutan entrenatzen jarraitzea da”

**N. Partida bat geratzen zaizue denboraldia amaitzeko?**

**G. B.** Kopa jokatzen ari gara, neurketa bat geratzen zaigu. Kopa txapelketan lasaiago gabiltza, beste modu batera planteatu dugu. Denek jokatzea, ondo pasatzea nahi genuen, liga denboraldia gogorra izan baita. Larunbat honetan Usurbilen jokatuko dugu, Aloña Mendiren aurka. Irabaztea espero dugu, denboraldia bukatu eta udaz gozatzea.

**N. Asteburuan oporrak hartzen dituzue beraz?**

**G. B.** Ekainaren 14a klubaren eguna dugu, gure asmoa, ordura arte astero hirutan entrenatzen jarraitzea da. Bestela atseden aldia luzeegia izango da. Orain amaitzen badugu, hiru hilabetez ez lukete entrenatuko, denbora gehiegi da.

**N. Zer erronka dituzue hurrengo denboraldirako? Noiz hasiko duzue?**

**G. B.** Aurre denboraldia normalean abuztuan egiten da. Ikusteke dago nor izango den entrenatzailea. Entrenatzailea neu banintz, erronka lehenengo geratzea litzateke, mailara egokitu eta denboraldian zehar eboluzionatu dutela ikusita. Lan gehixeagorekin eta denboraldia ondo planteatuta, erronka lor dezakegu.

**N. Kadete neskak finalerdira ailegatu berri dira Gipuzkoako Kopan. Albisteok nola eragiten dute zuen taldean?**

**G. B.** Oso albiste ona da, klub mailan lorturiko emaitzen ikuspegitik. Baina guri ez digu asko eragiten. Ez baitago ezta ziurtasun osoa, kadete neska guztiek jarraituko dutenik gerora eskubaloian jokatzen, seniorrak direnean. Izan dira jokalari oso onak, jubenil mailako bigarren urtean jokatu eta gero eskubaloia utzi dutenak. Guk ezin dugu planteatu etorkizuna, jokalariok jarraituko duten edo ez jakin gabe.

**N. Kluba omendu berria izan da Sagardo Egunean. Jokalari ohi eta entrenatzaile moduan zer nabarmenduko zenuke elkartearen ibilbideari dagokionean?**

**G. B.** Oso urte onak izan ditugu. Jokatzen hasi nintzenean, urtebetera, Usurbilek lehenengo aldiz jokatu zuen Euskal Ligan, jubenil eta kadete mailan. Gu mailaz igo eta Euskal Liga jokatu genuen. Handik urte batzuetara, 9 talde ere izatera igaro ginen. Gero beherakada bat egon zen. Eta orain, duela urte batzuetatik hona, talde kopurua errekuperatu dugu. Zuzendaritza taldeak lan ona egiten du, kluba eurengatik mugitzen da. Oso lan ona egiten dute. Eurek eta entrenatzaileek motibatu egiten dutenez, jokalariek eskubaloian jokatu nahi izatea lortzen da.

## Paleta Goma Txapelketa

**Maiatzak 27 igandea Usurbilen, 17:30**
Xabier Murua – Jon Olaizola
Oidui Usabiaga – Mikel Ibarreta

Igor Alkorta – Eneko Arregi
Iban Arruti – Haritz Harreguy

Unai Loidi – Josu Errekondo
Josu Arruti – Manuel Galarraga

Imanol Esnaola – Xabier Errasti
Enrike Huizi – Jokin Zubiaur

**Maiatzak 29 asteartea Usurbilen, 19:30**
Azpiroz – Ane Aranburu
Plas Lorenzo – Arantxa Unanue

Miren Alkaide – Ane Bailo
Zaloa Leoz – Nerea Zinkunegi

# Ekainean Errioxara, asteburu pasa

**Hilabete honetan Andatza Eguna ospatu ondoren, ekainari begira dira jada Andatza Mendizale Elkartekoak. Datorren hilaren 9 eta 10erako hain zuzen, mendi irteera antolatu dute Errioxara. San Millan de la Cogolla, Ezcaray, San Lorenzo, Valdezcaray inguruetan ibiliko dira. Asteburu pasa joateko aldez aurretik eman beharko da izena, ekainaren 4a baino lehen.**



ESKALADA IKASTAROA ANTOLATU DU ANDATZAK UZTAILERA BEGIRA.

20 euroko ordainketa egin beharko da, Andatza Mendi Kirol Taldeak Kutxan duen kontu korronte zenbaki honetan: 2101.0069.16.0121883656. Guztira halere, 60 euro ordaindu beharko dituzte Andatzako kideek, 65 euro gainerakoek. Prezio horren baitan sartzen da, aterpeko pentsio erdia eta joan etorria egiteko autobusa.

## Eskalada ikastaroa, uztailean

Bada Andatza Mendizale Elkartekoek antolatu duten beste ekimen bat ere; bi eguneko eskalada ikastaroa hain zuzen. Saioak uztailaren 7a eta 8an burutuko dira. Antolatzaileek berri eman dutenez, "jarduera rokodromoan eta aire librean burutuko da, eguraldiaren baldintzen arabera". Gaineratzen dutenez, prezioak barne hartzen du, material teknikoa, goi-mendi eskolako irakasle bat 6 ikaslerentzat eta asegurua. Ez ordea, "aktibitateen basera arteko garraioa, janariak". Ekainaren 11ra arte eman liteke izena. Ordainketak Kutxako kontu korronte zenbaki honetan egin behar dira: 2101.0069.16.0121883656.

50 euro bazkideek, 62 euro gainerakoek. Bi ekimen hauen inguruko informazio gehiago: andatza.com



**Gimnasia Erritmikoko Udaberriko Finala** ospatu zen igandean Hernanin. Txapelketa honetan Oiartzun Tximeleta kadete taldeak lehenengo postua lortu zuen eta Intxaurrondo Tximeleta taldeak bigarrena. Talde guztien lana oso ona izan zela adierazi digute antolatzaileek, baita Usurbilgo ordezkariena ere.

## Hasi da Usurbil Cup

Hasi da herriko gaztetxoen futbol festa, joan den ostiralaz geroztik martxan da Usurbil Cup. 35 talde, 350 gaztetxo neurketak jokatzen hasiak dira, Usurbil FT-k antolaturiko ekimenaren baitan. Lehen neurketak, Oiardo Kiroldegian jokatu dira, baina asteotan herriko beste eremu batzuetara ere hedatuko da txapelketa; besteak beste, frontoira edo baita Santuenera ere.



## Gipuzkoako Kopako finalak jokatuko dituzte kadeteek

Kadete nesken zein mutilen taldeak Gipuzkoako Kopako finalerako sailkatu dira. Bi finalak Usurbilen jokatuko dira larunbat honetan. Denen animoak beharko dira. Zorte on!

### ESKUBALOIA KIROLDEGIAN

**2012/05/25, ostirala:**
**Senior mutilak, Kopa nazionala. 20.00h.**
Atez Ate Usurbil - Ford Mugarri Arrasate

**2012/05/26, larunbata:**
**Senior neskak, Kopa nazionala. 16.00h.**
Atez Ate Usurbil - Aloña Mendi KE
**Kadete neskak, Gipuzkoa Kopa (Finala) 17.45h.**
Usurbil KE - IMH Elgoibar
**Kadete mutilak, Gipuzkoa Kopa (Finala)19.30h**
Usurbil K.E. - Aiadek Pulpo KE







## Agenda!!

### Maiatzak 25 ostirala

**-Hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzea** Mikel Laboa plazan, 20:00h.

### Maiatzak 26 larunbata

**- Kontzertua Akerra gaztetxean.** 3797, Nessun Dorma, Lion Head. 23:00h.

**- Kantu jira** Mikel Laboa plazatik abiatuta, 19:00ean.

### Maiatzak 28 astelehena

**-Zumarte Musika Eskolan** matrikulatzeko garaia.

**-Bertso jaialdia Udarregi ikastolan** erdiko aretoan, 17:30etik aurrera.

### Goardiako farmaziak

**Maiatzak 24, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Maiatzak 25, ostirala**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Maiatzak 26, larunbata**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Maiatzak 27, igandea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Maiatzak 28, astelehena**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Maiatzak 29, asteartea**
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

**Maiatzak 30, asteazkena**
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

**Maiatzak 31, osteguna**
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

**Ekainak 1, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ekainak 2, larunbata**
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

**Ekainak 3, igandea**
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

***GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ***
***Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani***
***Telefono zenbakia: 943 552 087.***
***Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA 25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)***

# Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko aukera egunotan

Datorren astelehenean, maiatzaren 28an irekiko da matrikulazio epea Zumarte Musika Eskolan. **Apuntatzeko astelehenetik ostiralerako tartea egongo da, Musika Eskolara gerturatuta ordutegi honetan: goizetan, astelehena ezik, 11:00-13:00 artean eta arratsaldero, 16:30-19:30 artean.**

2012-2013 ikasturte berrirako, honako eskaintza prestatu dute: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, tronboia, bonbardinoa, saxofoia, biolina, biola, perkusioa, klarinetea, abesbatza, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, talde instrumentalak. 4 urtetik gorakoek eman dezakete izena, Zumarte Musika Eskolan.


4 URTETIK GORAKOEK EMAN DEZAKETE IZENA.

Informazio gehiago honoko telefono zenbakira deituta jaso daiteke: 943 37 15 94.

Web orrialdean ere, zumarte.org helbidean, matrikulazioari buruzko xehetasunak ageri dira.

## Kontzertu gaua Akerra gaztetxean

Hiru musika talderen parte hartzearekin kontzertu gaua antolatu du Akerra Gaztetxeak, larunbat gauerako. 23:00etatik aurrera, thras eta hardcore estiloko hiru talde arituko dira Txokoalden; 3797, Nessun Dorma eta Lion Head taldeak hain zuzen.

## Kantu jira, larunbatean

Hileroko euskal kantu zaleen hitzordua, hemen da. Kantu jira ospatuko da larunbat honetan, maiatzaren 25ean. Ohi bezala, 19:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik. Antolakuntzatik, ahaztu gabe hitzordura kantu liburuxkarekin agertzera deitzen diete herritarrei.









### Etxebizitza

- 3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. 661 43 63 53.
-Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabala1@gmail.com
-Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650euro. Tf: 667 438 145.
- Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)
- Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairukoa, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914
- Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.
- Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berritua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.
- Etxebizitza alokatzen da Usurbilen. 3 logela, bi bainu gela, sukalde eta salarekin. 626 347 914.
- Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 31 milioi pezeta. 943370957.
- Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.
-Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.
-3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara,igogailua. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berrituta, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
-Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.

### Salerosketak / garajeak

- Kapritxozko Citroen Saxo salgai premiazkoa 2.200 euro. SS-BH, sekula istripurik izan gabea. Ondo zaindua eta gehigarri batzuk opari: bolante deportiboa eta erruberak zabaltzeko piezak. 609 928 387.
- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat..., Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.

### Lanpostuak

#### Lan-eskaerak

- Sukaldari bat behar dugu, Xarman. 943 368 771.
- Selektibitatea prestatzeko klaseak jaso nahi ditut martxoan eta apirilean, bi alor hauetan: Matematika (zientzietakoa eta letretakoa) eta Marrazketa teknikoa. Deitu, mesedez, telefono honetara: 665 748 723.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

#### Lan-eskaintzak

- Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).
- Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.
- 18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.
- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerreko lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)
-Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
-Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.
-Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
-Umeak zainduko nituzke arratsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
-Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatua eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
-Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
-Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757

### Bestelakoak / Galdutakoak

- Mutil baten txamarra, talla 10-12, galdu zaigu frontoian. Beig eta urdin kolorekoa. 656 702 957.
- Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223
- Egoera onean dauden kanping kanadienseak jasoko genituzke. ziortzage@gmail.com
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon"en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpinean. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.
- Haur sila eta kapazoa erosiko nuke: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451
- Akordeoia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen WII-a, PSP-a eta nintendo DSI-aren sofwarea aldatzen da, Internetetik jaitsitako joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen,ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.



**Zorionak! Muxu goxoak Oier, Lander eta Ametsi,** aitatxo eta amatxoren partez. Jarraitu orain bezain alai eta maitagarri.



**Zorionak Amaia!** 3 urte beteko dituzu. Muxu bat Aginagako eskolakoen partetik.



**Zorionak Naroa!** 4 urte beteko dituzu laster. Muxu bat Aginagako eskolakoen partetik.



**Oier, zorionak!** 7 urte beteko dituzu beraz ondo pasa eguna Agiñako eskolakoen partez.

### Hildakoak



**Maria Luisa Camino Huegun**
84 urterekin hil zen, maiatzaren 19an

### Hildakoak



**Julita Lizaso Peñagarikano**
94 urterekin hil zen, maiatzaren 20an




# Tapak eta aurkibideak prest




**Agur esan diogu 2011 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2011ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.**

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



# Edertu zaitez!

















